



LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.cgt-lkn.org

www.rojoynegro.info

ABORTOAREN ALDEKO LKNren ADIERAZPENA.

ABORTO LIBRE, PUBLIKO ETA DOAKO BATEN ALDE. ABORTOA KODE PENALETIK KANPORA.

Sistemaren krisi testuinguru honetan; lan, gizarte, politika, eta lege mailan gero eta atzerakoiagoa den testuinguru honetan; bizi dugun iruzur honen aurrean; **emakumeok egunero kapitalismo finantziero eta patriarkalaren eraso basatiaren ondorioak jasaten ditugu**: soldaten ezberdintasuna, aldi baterako kontratuak eta kontratu prekarioak, zerbitzu sozialetan eta menpekotasunean murrizketak, bazterketa sozial eta pobrezia portzentaia handiagoak, ezkutuko ekonomia, lan jardunaldi bikoitza, indarkeria matxista, ugalketa arloko osasun zerbitzuen murrizketa, la baldintza osasungarrien gabeziak eragindako abortoak. Sistemari pertsona gaixoak ez zaizkio axola, ez delako haiek zaintzeaz arduratzen, **bizitzarekiko mespretxuzko bere benetako aurpegia erakutsiz**, bereziki pertsona eta talde babesgabeenekin.

Lan eta gizarte lorpenen galera eta atzerakada honek, gobernuari, Apezpiku Batzarrari eta eliza katolikoari **HAIEN emakume eta familia perfektuaren eredu**a indar handiagoz inposatzeko aukera ematen die: emakume ugaltzaile hutsa, ezkondua, heterosexuala, sumisoa eta senarraren aginduetara, eta bere kabuz pentzatzeko gaitasunik gabea. Beraz, lortzeko hainbeste borrokatu izan ditugun lorpenetan atzera pausu bat. Gaur egun gobernuak eredu hau, mehatxuekin, beldurra eraginez, askapenaren aldeko borroka kriminalizatuz, **botere gehiegikeria, autoritarismoa, eta estatu indarkeria erabiliz**, emakumeoi inposatu nahi digun abortuaren Legearen erreformarako aurreproiektuan gauzatzen da.

LKNtik, abortuaren despenalizazioaren alde borrokatzen dugu eta pertsonak haien sexualitateaz, familia ereduaz, eta orokorrean haien bizitzaren gainean, askatasunez erabakitzeko duten eskubidea defendatzen dugu. Emakumeek haien gorputzaz eta amatasunaz erabakitzeko duten eskubidea haien esku egon behar du eta ez beste inorenetan.

***NIRE GORPUTZA NIREA DELAKO
ETA NIK ERABAKITZEN DUDALAKO.
ERREPIKATZEAZ EZ GARA NEKATUKO:***

- **Abortoaren despenalizazioa** Estatuko lurralde osoan: eperik eta baldintzarik gabe; guztiontzat, adingabekoak, etorkinak...
- **Emakumeon erabakitze gaitasun osoa haien gorputzaren kudeaketan:** psikologo talderik, txosten informatiborik eta hausnarketa eperik gabe.
- **Kalitatezko baliabide publikoak sustatzea,** baldintza berdinetan Erkidego Autonomiko guztietan.
- **Planifikazio familiarrerako zentru publikoen sorrera,** doako gazteontzako formakuntzarekin eta antisorgailuekin.
- **Hezkuntzako kurrikulumetan** zuzeneko indarkeria matxista, berdintasuna eta sexu zein maitasun harremanak landuko dituzten gaien sarrera.

GURE PROTESTAK KRIMINALIZATZEAZ ASKI DA

**ESKUBIDEA DUGULAKO PROTESTA
EGITEN DUGU. EZ GARA GAIZKILEAK.**

**AGINTE PATRIARKALA ZURITZEKO MORALA ETA
ERLIJIOA ERABILTZEARI UTZI.**

**ABORTOARI BAI. LAN BALDINTZA
NEGARGARRI ETA TOXIKOEK ERAGINDAKO
NAHI GABEKO ABORTOEI EZ.**

LANAREN SEXU ARABERAKO BEREIZKETA UKATZEN DUGU.

**"JAIO EZ DENAREN" BIZITZARAKO
ESKUBIDEA DEFENDATZEN DUTEN
BITARTEAN JAIOTAKO PERTSONEN
BIZITZA EZ ZAINZKEKO BESTE ALDE
BATERA BEGIRATZEN DUTENEN
HIPOKRESIA SALATZEN DUGU.**



**BELDURRIK EZ DUGU.
BORROKAN JARRAITUKO
DUGU.**

